

## GAUA ZEHARKATUZ BAKARRIK HEL ZAITEZKE EGUNSENTIRA



*Nada de acatar y no obedecer,  
hay que atacar lo que no se acata.*

Marc Legasse

Gaueko ilunean bere gorputz nekatua kale ormaren kontra jarrita, hasperen sakon bat egin, eta oka egiteko desio bizia sentitu zuen; erraiak hondatzen zizkion barne ahalezin hori irentsi beharrak min zegion. Ingurunetik guztiz at zirudien; kolore axatutako neoizko argiak, kaleak iluntasun likits batez jantziak; biko-teak bazterretan intziri luzeetan oldarturik mugimendu eroan; atso zaharrak alkoholetan itorik azken mozkorrek mingain kirastunez miazkaturiko hanka tarteko lora usteldua eskeintzen..., eta kaleko orma bakartiak, ilunpe lohi batez blai eginak. Enekok eskua poltsikora eraman zuen eta billete zimur batzu atera. Bapatean, zokoratuak uste zituen ameskaiztoak berriro bururatu zitzaizkion labainkada zorrotzak bailiran: gela txikia, argi gorrixka eta izerdi kiratsa, maindire bustietan bi gizonetako biluzik; agindu bat, billete gutxi batzu... ezpain arrotz haien hezetasun gordina, esku arrotzak praketan, esku bortitzak lepondoan bula-

rrean, iztarretan..., ileak nahastuz, larruazala ikutuz, besarkatuz; ezpain arrotzak ezpainetan, bizkarrean behera abiada bizian mingain lehorrez izterrak besarkatuz, urratuz, zaurituz; eta gorputz bi, bata bestearen gainean, bata bestearen preso. Billete gutxi batzu... Pentsamendu guzti hauek itolarria eragiten zioten, lepondoan pixkanaka estutzen zihoakion soka bailitzan.

Gaueko ilunean bere gorputz nekatua kale ormaren kontra jarrita, hasperen sakon bat...; aurreko ezpaloi-ra keinu batzu zuzendu eta bertatik itzal bat gerturatuz doa; Enekok eskua poltsikora eraman eta billete zimur batzu atera eta... papelina bat.

Kontxako hondartza aldera jo zuen; bere argaltasuna, bere ahulezia, Kontxako pasealekuan zehar pauso motelez zeramaten. Tente mantendu nahi, baina bazter guztietan estropozo egiten; ezin zezakeen badiako edertasuna aprezia, itsaskirriaren goxoa. Une horretan postal turistiko guztiak, benetazko Donostiarren alderdi kuttunena, sasi burgesen harrokeria, pikutara bidali zituen Enekok.

*«San Sebastián: ciudad española situada en la costa cantábrica. A finales del s. XIX se convirtió en uno de los lugares de veraneo más import. dentro de España e*



*incluso de Europa. Su paisaje urbano muy en consonancia con su carácter de ciudad balneario de abolengo».*

Eta Eneko balantzaka, oka eginez, itolarri zoroan; Kontxako badiaren erdian... Baina gorputza ezin tente mantendurik gogorki eusten zion eskubiko eskuan papelinari.

Bi gorputz biluziak maindire tartean, bata bestea-  
ren preso, askatasunez beteriko gure gizarte honetan.

Papelina bat, odola besotik behera odolustu arte, gure Donostia liluragarrian.

Billete gutxi batzu hiriaren txukuntasunaz ardura-  
turiko hiritar jator guztientzat.

Eskailerak jeitsi eta hondartzara abiatu zen. Hotza zuen hezurretan, baina itolarriak mugimenduak azkartzera bultzatzen zion; papelina, jeringa, metxeroa... Alferrik badiaren iluminazio bikaina, giroaren atsegina, ilargiaren edertasuna olatuen kulunkan; zertarako balio munduko postal eta imajin eder guztiak papelina bakoitza zainebaki odoltsu batean bilakatzen bada? zertarako esnatu bizitzara billete gutxi batzu bilatzeko soilik baliogarri bazaigu?

Zertarako erregutu, zertarako, borrokatu ez dugunaren preso bagara?

Odolustutze amaigabe hori mantentzea, pizti erdialaren herioa haizeak hara eta hona zabal dezan; alferrik! Hartziko gaztelu zaharkitua entzungor da, ikusgor da.

Baina gaztelu zaharkituari su emaiok, bere sua gorrotoaren suak mendera dezan, suak sua kiskal dezan, itzal dezan, eta gatazkatik itsasaize epelak irensten duen ke hilada xume bat besterik gera ez dadin. Horrela ez bada, gazteluko argiak begiak itxutuko dizkik; ohorezko jaun andereen hitzek entzungor bihurtuko haute. Ilunpeko isiltasunera kondenaturik infernu izango haiz.

Alkondara kendu eta gerriz gora biluzik geratu zen. Bularreko ileak itsaskirri epelaren magalean korapilatzen ziren, baina Enekok hotza, hezurretan kriston hotza, besterik ez zuen antzematen; jeringa hartu eta eskubiko besorantz zuzendu zuen, beldurrez, orratzaren dizdira larruzalean nabaritzean Itxaroren aurpegi irrifartsua burura bait zetorkion, haren ile beltzaren gozotasuna, ezpainen hezetasuna; eta bu-  
ruan nahastu zitzaizkion Itxaroren presentzia soila, bere eskutik helduta ibiltzeak bihotzean eragiten zion uholdea; gau batean hondartzako uretan Itxaroren alkondara xuriaren azpian nola deskubritu zituen bularraren borobiltasuna, titi punten gogortasun miresgarria eskuek laztantzean, iztarren kontra, gozamen intziri luzeak ezpainenatik bularretara, ezpainenatik iztarretara, lepondora, ezpainenatik ezpainenara, intziri sakonak.

Eta guzti horretan orratz traidore bat agertu zen; baina Itxarok katea apurtzea lortu zuen, orratz batek sorrarazitako estasian galdu zen itsasoko olatuen kulunkan, itsasoaz bestalderuntz. Desagertu ziren herio garraisiak, billete urriak, gau ilunak.

Oroitzapen atseginak pilatzen ziren Enekoren gogamenean. Itsasoko urek pixkanaka gora zegiten uhinkada ixiletan, oinak belauinak, izterrak eztiki laztanduz. Une horretan gogamena dantzan somatu

zuen haizearen magalean, gogoá beste nonbaitera erratua, agian itsasoaz bestaldean antzematen zituen kantuetara.

*Flores negras en tu corazón  
tapan la luz...*

Emakumezko baten ahotsa. Eta horren arabera ahotsaren gozoa dastatuz —flores negras... tapan la luz...— neska ezezagunaren aurpegiko zeini liluragarriak imajinatu zituen;

*... está lejos el amor  
la lucha, la razón  
y no puedes sonreír...*

ile beltz luzea masailetan behera; ezpain hezeetan ile nahastuak, erdi galduak, mingain puntarekin erdi jolasean; alkondora xuria iztarretaraino, haizearen indarrez mugituz, gorputzaren bazter guztiak bere xuritasunaz eztiki ikutuz, seinalatuz...;

—está lejos el amor, la lucha...— irrifarre ixil bat eta begi lotsatiak. Enekoren garraisi zoroak areagotu dira. Eskuetan, jeringa huts bat; ezkerreko besoa odolztaturik...

*Flores negras sembradas a tu alrededor.  
Flores negras tiradas cerca de tí.*

Zeru urdinean izar galdu bat erori zen tximista bailitzan. Olatuek hondartzan gora ziharduten uhinkada ixiletan —flores negras... a tu alrededor..., cerca de tí...—. Enekok hankak zabaltzen zituen, izatearen mugagabea. Izterrak zabaldu bide zabala, mugagabea, seinalatuz, eta gora eta behera olatuak...; etengabeko plazer orruak, arnasestuka, hezetasuna, zirrara atsegina..., soilik errebelioa.

*Ya no estás aquí  
no puedes volver*

Itsasoko urek gora zegiten; mendeku deiak ugaldut ziren, intziri luzeetan barna, uhinkada goxoen kulunkan, ortzea doinu ederrez jantziz.

*... dejaste la vida*

Hondartzan hilotz bat, jeringa huts bat, eta katea apurtua; —... dejaste la vida— soilik errebelioa... Irain galanta!

*tu guitarra blanca  
dejó de sonar. (I)*

Enekoekin hire hegaldia itsasoko kresalean gorde-  
rik itsasoaz bestaldeko kantuarrekin bat egin arte.

**Aitor Sarasola**

(I) «Flores negras». **Ramoncín**